

PAZKOALDIA
JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA (A)

Gaubeila

I. SUA BEDEINKATZEA

Hasierako oharpena

Senide maiteok: Gau santu honetan, Kristo gure Jauna hilen artetik piztu denez gero, Eliza santuak dei egiten die mundu zabalean dauden bere seme-alabei, elkaturik, erne eta otoitzean egoteko. Horrela Jaunaren hitza entzunez eta Haren sakramentuak hartuz bere Pazkoa elkartean ospatzen badugu, izango dugu itxaropen, Harekin batean menperatuko dugula heriotza eta Berarekin biziko garela, beti eta beti Jaungoikoarengan.

Bedeinkapen otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jaungoiko gure Jauna,
zure Semea da munduaren argia,
eta Beraren bitartez eman diguzu zeure fededunoi
zeure argiaren distira;
bedeinka + ezazu su berri hau,
eta iguzu, Pazko jai hauetan zeruko gauzetarako suturik,
arima garbiz betiko argiaren jaietara irits gaitzela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

Prozesioa

V/. Kristoren argia.
R/. **Eskerrak Jainkoari.**

Pazko-deia

Poztu bedi, poztu oraintxe, zeruko aingeru taldea;
poztu bitez zerutar guztiak,
eta, Kristo berpiztuaren garaipena ospatzeko,
entzun bedi salbamenaren irrintzi pozgarria.

Alai bedi lurra ere, horrelako argi errainuz argiturik,
eta, betiereko Erregearen distiraz beterik,
ikus beza nola izan diren uxatuak lurbira guztiko ilunbeak.

Poztu bedi, baita Eliza ama ere,
horrenbesteko argi distiraz apaindurik;
eta herriaren oihu hotsez dardar jar bedi eliz barru hau.

[Horregatik, zuek, senide maiteok,

argi santu honen distira ederra ikusten duzuenok,
 eska ezazue, nirekin batera,
 Jainko ahalguztidunaren errukia.
 Nik merezi gabe, bere diakono egin nauen Hark argi nazala
 Pazko zuzi honen goralpenak kanta ditzadan.]

[V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.]**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen
 bihotzez eta gogoz oihuka goratzea
 Jaungoiko ikustezin Aita ahalguztiduna
 eta Haren Seme bakar Jesu Kristo gure Jauna.
 Beronek ordaindu baitio gure ordez
 Aita betierekoari Adanen zorra,
 eta bere odol santuaz kendu digu
 antzinako bekatuaren zigorra.

Pazko jaiak ditugu:
 jai hauetan eskaintzen da egiazko Bildotsa,
 bere odolaz fededunen etxeetako ateak
 sagaratzen dituen.

Gau honetan, Jauna,
 atera zenituen Zuk Ejiptotik israeldarrak,
 gure guraso zaharrak,
 eta Itsaso Gorrian zehar,
 oinik busti gabe, lehorrez eraman.

Hauxe da, izan ere, harako gaua,
 zutabe antzeko laino argitsu baten distirak
 bekatuaren ilunbeak uxatu zituena.

Hauxe da, bai, gaua:
 lur zabalean Kristorengan sinesten dutenak
 lurreko makurkeria eta bekatuen ilunbeetatik atera,
 graziara biurtu
 eta santutasunera erakartzen dituen gaua.

Hauxe da gaua,
 Kristo, heriotzaren kateak hautsirik,
 hilen artetik garaile atera zenekoa.
 Jaiotzak ez zuen izango guretzat baliorik,
 Kristoren salbamena izan ezik.

Bai harrigarria zure gudanako errukia!

Bai neurrigabea zure maitasun samurra!
Zerbitzaria erosteko, Semea ematea!

Beharrezkoa, benetan, Adanen bekatua,
Kristoren heriotzaz barkatua!
Hau erru zorionekoa,
horrelako Erosle bikaina lortu diguna!

Hau, bai, benetan gau zoriontsua:
beronek bakarrik jakin baitzituen
Kristo hilen artetik piztu zeneko garaia eta ordua!

Gau honetaz dago idatzia:
«Eguna bezain argitsu bihurtuko da gaua:
nire argi, nire atsegin izango da».

Hau gau santua,
gaiztakeriak uxatu eta hobenak garbitzen dituen,
eroriei errugabetasuna eta minduei poza ekartzen diena.
Gorrotok uxatu, bakea sortu
eta haundikiak menperatzen dituen gaua!

Gau pozgarri honetan, hartzazu, Aita on Horrek,
arratseko gorespen opari hau:
Eliza santuak egiten baitizu,
bere zerbitzarien eskuz,
argizari honen eskaintza ederrean.

Eta badakigu zer iragartzen digun,
Jainkoaren aintzarako su bizitan dagoen zutabe honek.
Bere sua beste askorengana zabaldu arren,
ez du argitasunik galtzen.
Argi zuzi eder hau, hain zuzen ere,
erleen argizari urtuak janaritzen du.

Hau, bai, benetan gau zoriontsua,
zerua lurrarekin,
gizona Jainkoarekin bat egiten denekoa!

Zure izenaren aintzarako
bedeinkatua dugun argizari honek, Jauna,
pizturik iraun dezala,
gau honetako iluna urratzeko;
eta Zuretzat usain gozo bihurturik,
izarren argiarekin elkar dadila.
Pizturik aurki dezala goizeko izarrak:
iluntzerik ezagutzen ez duen Artizarrak,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak,
hilen artetik pizturik,
gizadia bere bakearen distiraz argitu zuenak.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

II. HITZAREN LITURGIA

I. IRAKURGAIA: Gn 1, 1–2, 2

*Ikusi zuen Jaungoikoak, Berak egindako guztia;
eta oso ona aurkitu zuen.*

Genesis liburutik

Hasieran Jaungoikoak zeru-lurrak egin zituen. [Lurra nahas-mahas bat zen: ur haundi gainean, iluna. Eta Jaungoikoaren arnasa hegan zebilen ur azalean.

Eta Jaungoikoak honela esan zuen: «Izan bedi argia». Eta sortu zen argia. Eta argia alde batera eta iluna bestera bereizi zituen Jaungoikoak; eta argiari «egun» ezarri zion izen, eta ilunari «gau». Eta arrats eta goiz: lehenengo eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Izan bedi, ur bien artean sabai bat, ur batzuk besteetatik bereiz ditzan». Eta sabaia egin zuen, eta sabai azpiko urak sabai gaineko uretatik bereizi zituen. Eta hala egin zen. Sabaiari «zeru» ezarri zion izen. Eta arrats eta goiz: bigarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Bil bitez zeru azpiko urak leku bakar batera, eta ager bedi lehorra». Eta hala egin zen. Lehorrari «lur» ezarri zion izen, eta ur bilduari «itsaso». Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Eman beza lurrak landarea, hazidun belarra, eta ale barruan hazia duen zuhaitza lur gainean». Eta hala egin zen. Lurrak eman zuen landarea: hazidun belarra, bakoitzari dagokion haziarekin; eta ale barruan hazia duen zuhaitza, bakoitzari dagokion haziarekin. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak. Eta arrats eta goiz: hirugarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Izan bitez argizuziak zeru sabaian, eguna gauetik bereiz dezaten, eta jaiak eta egunak eta urteak adieraz ditzaten; eta zeru sabaian argiegile izan daitezen, lurrari argi eginez». Eta hala egin zen. Bi argizuzi haundi egin zituen Jaungoikoak: haundiena egunaren zaindari izan zedin, eta txikiena gauaren zaindari; eta izarrak. Eta zeru sabaian ipini zituen Jaungoikoak, lurra argi zezaten; egunaren eta gauaren zaindari izan zitezten; eta argia ilunetik bereiz zezaten. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak. Eta arrats eta goiz: laugarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Irakin bezate urek bizi-arnasadunez; eta ager bitez txoriak lur gainean, zeru sabaiaurrean». Eta arrain-tzarrak egin zituen Jaungoikoak eta urak irakin dituen narrazti bizidunak, bakoitza bere erara, eta hegodun hegaztiak, bakoitza bere erara. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak. Eta bedeinkatu zituen, esanez: «Hazi zaitezte eta ugaritu; bete itzazue itsasoko urak, eta ugari bitez hegaztiak lurrean». Eta arrats eta goiz: bosgarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Sor bitza lurrak izaki bizidunak, bakoitza bere erara: abereak, narraztiak eta piztiak bakoitza bere erara». Eta hala egin zen. Eta egin zituen Jaungoikoak piztiak, abereak eta narraztiak bakoitza bere erara. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak.]

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Egin dezagun gizona gure antz eta irudiko; eta izan bedi, itsasoko arrainen, zeruko hegaztien, etxeko abereen eta lurreko narraztien jaun».

Eta egin zuen Jaungoikoak gizona bere irudiko:

Jaungoikoaren irudiko egin zuen;
gizaseme eta emakume egin zituen.

Eta bedeinkatu zituen Jaungoikoak, eta honela esan zien: «Hazi zaitezte eta ugaritu; bete ezazue lurra, eta izan zaitezte beraren jaun; menpera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabilzan bizidun guztiak».

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Begira, zuentzat ematen dizkizuet, lurraren azalean hazia sortzen duten belar guztiak; eta hazia sortzen duten aledun zuhaitz guztiak zu

belarra ematen diet janari, lurreko pizti guztiei, eta lurreko narrazti guztiei eta arnasadun guztiei». Eta hala egin zen. Eta ikusi zuen Jaungoikoak, Berak egindako guztia; eta oso ona aurkitu zuen. [Eta arrats eta goiz: seigarren eguna. Osatuak gelditu ziren, beraz, zerua, lurra eta haien talde guztiak. Eta zazpigarren egunerako burutu zuen Jaungoikoak, Berak egindako guztia; eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atseden hartu zuen.]

ERANTZUN SALMOA: Sal 103, 1-2a. 5-6. 10 eta 12. 13-14ab. 24 eta 35c

**R/. Bidal ezazu, Jauna, zeure arnasa,
eta berrierazi lur-azala.**

Ene arima, goretsazu Jauna!
Guztiz haundi zaitut, Jauna, ene Jainkoa!
Haundi eta eder zaude jantzia,
estalki duzu argia. R/.

Ezarri duzu lurra bere orpoetan,
ez da kolokatuko mendeen mendeetan.
Itsasoz bildu duzu soineko gisan,
urak mendi gainean kokatu ziren. R/.

Ibaiak sortu dituzu iturrietatik,
eta xirripan doaz mendi artetik.
Zeruko hegaztiak bizi dira ur ondoetan,
ematen dituzte beren txioak muskiletan. R/.

Mendiak zeure egoitzatik ureztatzen dituzu,
lurra zeure eskuko emariz asetzen duzu.
Sortzen duzu belarra abereentzat,
landarea gizakiarentzat. R/.

Bai ugari direla, Jauna, Zuk eginak,
zuhurtasunez eginak zeharo,
lurra zure sorkariz betea dago!
Ene arima, goretsazu Jauna! R/.

I. irakurgai ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko ahalguztidun betierekoa,
gauza guztiak harrigarriro egin dituzu;
egizu, Zuk salbatutako gizon-emakumeek ikus dezatela,
aldi guztien hasieran mundua egitea harrigarria izan bazen,
are harrigarriagoa dela,
azken aldietan Kristo gure Pazkoak eskainitako oparia.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

II. IRAKURGAIA: Gn 22, 1-18

Sinesmenean gure aita dugun Abrahamen oparia.

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaungoikoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta honela esan zion: «Abraham!» Abrahamek: «Hemen nauzu». Eta Jaungoikoak berari: «Hartzazu Isaak, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera, eta eskainiezadazu erreopari, Nik esango dizudan mendi gainean».

[Jaiki zen Abraham goizean goiz, eta astoa txalmatu, bi morroi eta Isaak semea berekin hartu, eta erreoparitarako egurra txikitu ondoren, atera zen eta Jaungoikoak esandako lekura zihoan. Hirugarren egunean, begiak jasorik, lekua urrutira ikusi zuen; eta morroiei esan zien: «Zaudete hemen astoarekin, mutikoa eta biok haraino joan, eta Jaungoikoa gurtu ondoren honera itzuli arte».

Hartu zuen Abrahamek erreoparitarako egurra eta Isaak semea bizkarreratu zion; berak sua eta ezpata zeramatzan. Biak bidean zihoazela, Isaak honela mintzatu zitzaion aitari: «Aita!» Eta aitak hari: «Zer, seme?» Eta semeak: «Sua eta egurra baditugu; non dugu, ordea, bildots erre-beharra?» Eta Abrahamek: «Seme, bildots erre-beharra, Jaungoikoak eratuko digu».]

Aurrera jarraituz, iritsi ziren Jaungoikoak esandako lekura; [Abrahamek eraiki zuen aldarea eta pilatu egurra; gero bere seme Isaak lotu eta aldarean egur-pila gainean ipinu zuen.] Hartu zuen Abrahamek ezpata bere semea hiltzeko; baina Jaungoikoaren aingeruak hotsegin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta aingeruak: «Ez luza eskurik zure semearen gainera; ez egin ezer. Ikusi dut Jaungoikoaren beldur zarela, ez baitidazu zure seme bakarra ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso, eta ahari bat ikusi zuen han atzean, adarretatik sastraka artean lotua; joan zen, bada, Abraham, eta aharia hartu eta huraxe eskaini zuen erreopari semearen orde. [Eta leku hari, «Jaunak begiratzen du» ezarri zion izen; eta gaurdaino ere mendi hau «Jaunak begiratzen du» deritza.]

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hala Ni Jainkoa! –dio Jaunak–, horrela egin duzulako, zure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut; eta zure ondorengoak, zeruko izarrak eta itsas bazterrean dagoen hondarra bezain ugari egingo ditut; eta zure ondorengoak, beren etsaien hiri ateen jabe egingo dira; eta lurreko herri guztiak bedeinkatuak izango dira zure ondorengoetan, nire esana egin duzulako».

ERANTZUN SALMOA: Sal 15, 5 eta 8. 9-10. 11

R/. **Zaindu nazazu, Jauna,
babes bila bainator Zugana.**

Jauna da nire ondare eta edontzia;
Zuk daukazu eskuetan nire zoria.
Begi aurrean ipintzen dut beti Jauna;
eskuinean daukadala, ez naiteke dardara. R/.

Horregatik alai daukat bihotza, pozik barrena,
haragi honek ere bakean du atsedena.
Ez baituzu nire bizia Leizera egotziko,
ezta zure zintzoa ustelak hartzen utziko. R/.

Bizirako bidea erakutsiko didazu:

alaitasun betea zeure aurrean,
betiko atseginak zeure eskuinean. R/.

II. irakurgaia ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko Jauna, fededunen Aita,
zure semetzako grazia isuriz,
zure agintzariaren seme-alabak ugaritzen dituzu lur guztian,
eta, Pazko misterioaren bidez,
Abrahan zure zerbitzaria herrialde guztien aita egin duzu,
Zeuk agindu bezala;
egizu, arren,
zeure herriak behar bezala jarrai diezaiola zure deiari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

III. IRAKURGAIA: Ex 14, 15–15, 1a

*Israeldarrak itsasoan barrena sartu ziren,
oinik busti gabe.*

Exodo liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zer ari zara, Niri oihuka? Esan israeldarrei, abia daitezela. Jaso zuk zure makila, zabaldu zure eskua itsas gainean, eta erdibi egizu itsasoa, israeldarrak itsas barruan sar daitezen, oinik busti gabe. Nik ejiptoarren bihotzak gogortuko ditut, ondotik jarrai diezazueten; eta aintzaz beteko naiz Faraonen bizkar eta haren gudari talde, gurdi eta gudarien bizkar. Ikusiko dute ejiptoarrek, Ni naizela Jauna, aintzaz beteko naizenean Faraonen bizkar eta haren gudari talde, gurdi eta gudarien bizkar».

Abiatu zen, Israelgo gudari taldearen aurretik zihoan Jaunaren aingerua, eta gero atzera itzuli zen. Lainozko pilarea ere aurretik atzera itzuli zen eta atzekaldean jarri, israeldarren eta ejiptoarren oihal txabolategien erdian. Iluna zen lainoa, eta burruka hasi ezinik igaro zuten gau guztia.

Moisesek zabaldu zuen eskua itsas gainean, eta Jaunak gau guztian haize indartsua bidali zuen itsas gainera; lehortu zen itsasoa, eta urak erdibi egin ziren. Israeldarrak itsasoan barrena sartu ziren, oinik busti gabe, bitartean urak esker-eskuin harresi zitzaizkiela. Ejiptoarrek atzetik jarraitu zieten, eta itsas barrura sartu ziren Faraonen zaldi eta gurdiak beren gudariek.

Egungentian Jaunak su eta lainozko pilaretik begiratu zion ejiptoarren gudari taldeari, eta zeharo ikaratu zuen gudari talde guztia. Gurdien gurpilak kolokatu zituen; eta doi-doi ibil zitezkeen. Ejiptoarrak oihuka hasi ziren: «Goazen ihes Israelengandik, Jaungoikoa beren alde dute eta, ejiptoarren aurka».

Jaunak honela esan zion Moisesi: «Zabaltzazu eskua itsas gainera, eta bihur bitez urak ejiptoarren eta haien gurdi eta zaldizkoen gainera». Zabaldu zuen Moisesek eskua itsas gainera, eta egungentian itsasoa bere lekura bihurtu zen; ejiptoarrek ihes egin nahi izan zuten, uraren aurrez aurre aurkitu ziren, eta horrela amildu zituen Jaunak ejiptoarrak itsas barruan. Bihurtu ziren urak eta estali zituzten gurdi, zaldizko, eta israeldarren atzetik itsasoan sartu zen Faraonen gudari talde guztia; ez zen bat bakarrik ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsasoaren erdiz erdi, urak ezker-eskuin harresi zituztela.

Egun hartan atera zuen Jaunak Israel ejiptoarren eskuetatik; Israelek ejiptoarrak hilak ikusi zituen itsas bazterrean. Eta Jaunaren esku indartsuak ejiptoarren kontra egin zuena ikusiz, Israel Jaunaren beldur izaten hasi zen; eta herriak sinetsi zuen Jaunarengan eta Haren zerbitzari

Moisesengan.

Orduan Moisesek eta israeldarrek abesti bat kantatu zioten Jaunari:

ERANTZUN SALMOA: Ex 15, 1-2. 3-4. 5-6. 17-18

R/. Kanta dagiogun Jaunari garai-garai delako.

Kanta dagiogun Jaunari garai-garai delako,
zaldi eta zaldun itsasora amildu dituelako.

Jauna baita nire indar eta kemen,

Bera izan da nire salbamen.

Hau dut neure Jainkoa, zabal dut aipatuko,

gurasoen Aita, Bera nik goratuko. R/.

Gudari da Jauna,

Jauna du Berak izena.

Faraonen gurdi eta gudariak

itsasoan amildu ditu guztiak,

Itsaso Gorrian ito, haren buruzagi haundiak. R/.

Ur palastek estali zituzten,

harri-kozkorra bezala ondora joan ziren.

Zure eskuina, Jauna, bizkor harrigarria,

zure eskuinak, Jauna, xehatzen du etsaia. R/.

Sartu dituzu eta landatu Zu jabe zaituen mendian,

Zuk, Jauna, bizitzeko gertutu duzun tokian,

zure eskuek, Jauna, eraiki zuten jauretxean.

Jauna dugu errege,

betidanik eta betiere. R/.

III. irakurgai ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.

Jainko Jauna,

gure egunotan ere ikusten dugu

zure lehengo mirariak argitsu berritzen dituzula;

lehenago, herri bat Faraonen menpetik atereaz

erakutsi zenuen zeure indarra;

orain, herri guztiak salbatzen dituzu,

Bataioko uretan bizi berria emanez;

egizu, mundu guztiko herriak irits daitezela

Abrahamen seme-alaba eta israeldar berri izatera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

R/. Amen.

IV. IRAKURGAIA: Is 54, 5-14

Betiko onginahiez maite zaitu .Jaunak.

Isaias Profetaren liburutik

Zure egileak bere emazte egingo zaitu;
 Haren izena, diren guztien Jauna.
 Israelgo Santua, zure Salbatzailea,
 lur osoaren Jainko deritza.
 Emazte baztertu eta atsekabetuari bezala,
 dei egiten dizu Jaunak berriro;
 gaztetako emazte baztertuari bezala
 –dio zure Jaungoikoak–.
 Apur batez baztertu zintudan;
 baina maitasun haundiz biltzen zaitut berriro.
 Haserrealdi labur batez
 gorde nuen nire aurpegia zuregandik;
 baina betiko onginahiez maite zaitut
 –dio Jaunak, zure Salbatzaileak–.
 Noeren egunetan egina egiten dut;
 orduan zin egin nuen,
 uholdeak ez zuela gehiago lurrik estaliko;
 horrela zin egiten dizut orain,
 ez natzaizula berriz haserretuko,
 ez zaitudala zematuko.
 Mendiak tokiz aldaturik ere,
 mendiskek koloka eginik ere,
 nire errukia ez da zuregandik aldentuko,
 nire bake elkargoak ez du kolokarik egingo.
 Zorigaiztokoa zu,
 ekaitzak joa, atsekabetu hori!
 Nik neuk kokatuko ditut
 zure harriak malakita gainean,
 eta zure oinarriak zafir gainean;
 errubiz egingo ditut zure gaztelu gainak,
 esmeralda harriz zure atearak
 eta harribitxiz zure harresi guztiak.
 Jaunaren ikasle izango dira zure semeak;
 eta bakea izango dute.
 Zuzentasuna izango duzu oinarri sendo.
 Zapaltzetik urruti egongo zara
 eta ez duzu beldurrik izango;
 ikaratzetik urruti egongo zara,
 eta ez zaizu ikararik berriz hurbilduko.

ERANTZUN SALMOA: Sal 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b

**R/. Goretsiko zaitut, Jauna,
 onik atera nauzulako.**

Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
 etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.

Jauna, Leizetik nire bizia atera duzu,
zulora doazenengandik bizirik gorde nauzu. R/.

Eresi egiozue, zintzoek, Jaunari,
eman eskerrak Haren izen santuari.
Une baterako da Haren haserrea,
bizi guztirako Haren on izatea.
Negarra dator arratsaldean,
baina poza goizean. R/.

Entzun niri eta nitaz erruki, Jauna,
izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
Negarra, dantza bihurtu didazu,
Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.

IV. irakurgai ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure izenaren aintzarako, ugari itzazu
gure fede-gurasoei agindu zenizkien ondorengoak
eta gehitu zure seme-alabatzat aukeratuen taldea,
zure Elizak ikus dezan
oraintxedanik betetzen ari dela
antzinako arbasoek sinetsi eta itxaron zutena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

V. IRAKURGAIA: Is 55, 1-11

*Zatozte Niregana, eta bizkortuko zarete;
betiko elkargoa egingo dut zuekin.*

Isaias Profetaren liburitik

Honela mintzo da Jauna:
«Egarri zareten guztiok, zatozte uretara;
dirurik ez duzuenok ere bai;
zatozte, eros garia eta jan ordaindu gabe,
ardoa eta esnea hutsean.
Zergatik eralki dirua, janari ez den gauzetan?
Eta zuen lan saria, asetzen ez duten gauzetan?
Entzun Niri, entzun eta ondo jango duzue;
janari gozoen atsegina izango duzue.
Erne belarriak, etorri Niregana;
entzun, eta bizkortuko zarete.
Betiko elkargoa egingo dut zuekin:
Dabidi agindu nion agintzaria.
Berau egin nuen nire testigu herrien aurrean,
jabe eta nagusi herridientzat.

Ezagutzen ez duzun herriari dei egingo diozu,
 eta ezagutzen ez zintuen herria
 lasterka etorriko zaizu:
 Jaunarengatik, zure Jaungoikoarengatik,
 zu goratzen zaituen Israelgo Santuarengatik.
 Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen artean;
 hotsegiozue, hurbil dagoen artean.
 Gizon bihurriak utz beza bere bidea,
 eta gaiztoak bere asmoak;
 itzul bedi Jaunarengana,
 eta errukituko zaio;
 gure Jaungoikoarengana,
 guztiz errukior baita.
 Nire asmoak ez dira zuen asmo;
 zuen bideak ez dira nire bide —dio Jaunak—.
 Lurretik zerua bezain urruti daude
 nire bideak zuen bideetatik,
 nire asmoak zuen asmoetatik.
 Euria eta elurra zerutik jaisten dira,
 eta ez dira berriro hara itzultzen,
 lurra ase, ernaldu eta lehertarazi gabe,
 ereileari hazia eman diezaion,
 eta jaleari ogia;
 hala izango da nire ahotik ateratako hitza:
 ez da Niregana hutsik itzuliko;
 baizik egingo du Nik nahi nuena,
 eta beteko Nik agindutakoa».

ERANTZUN SALMOA: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6

**R/. Aterako dituzue urak pozetan
 salbamenaren iturrietan.**

Hara, Jainkoa da nire salbatzaile;
 badut uste on eta ez naiz beldur.
 Jauna baita nire indar eta kemen,
 Bera izan da nire salbamen. R/.

Aterako dituzue urak pozetan
 salbamenaren iturrietan.
 «Eskerrak Jaunari, Haren izena oihuegizue.»
 Ezagutarazi herrietan Haren eginen bikainak,
 iragar ezazue Haren izen garaia. R/.

Kanta Jaunari, egin baititu aipatzekoak,
 ezagutu bezate hau lurbira osoan.
 Sionen bizi zaretenok, goretsazue irrintzika,
 haundi baitago Israelgo Santua zuen erdian. R/.

V. irakurgai ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.
 Jainko ahalguztidun betierekoa,
 munduaren itxaropen bakarra,
 profeten ahoz, alde zuretik erakutsi dituzu,
 orain betetzen diren misterioak;
 piztu zeure herriaren asmo onak,
 zure graziaz gabe,
 fededunak ez baitezake onbidean aurrera egin.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
 R/. Amen.

VI. IRAKURGAIA: Ba 3, 9-15. 32-4, 4

Zabiltza Jaunaren argiaren distiratan.

Baruk Profetaren liburutik

Adi itzazu, Israel, bizi-aginduak;
 entzun, zuzentasuna ikasteko.
 Zergatik, Israel,
 zergatik zaude oraindik etsaien herrian?
 Zergatik atzerrian zahartzen ari zara?
 Zergatik zaude garputz hilekin kutsaturik,
 hilen artean jausten direnen lerroan hartua?
 Utzi egin baituzu jakinduriaren iturria.
 Jainko bideetan ibili bazina,
 bakean bizi zintezkeen betiko.
 Ikas non dagoen zuhertasuna,
 non indarra eta adimena;
 jakin dezazun era berean
 non aurkitzen den bizi luzea,
 begietako argia eta bakea.
 Baina nork aurkitu du haren bizi lekua?
 Nor sartu da haren ondasundegian?

Baina gauza guztiak dakizkienak,
 ezagutzen du jakinduria,
 eta aztertzen eta sakontzen du.
 Lurra betirako sendo ezarri zuenak,
 eta lau-oineko bizidunez bete zuenak;
 agintzen dio argiari eta berehala badoa;
 deitzen du eta esana egiten dio ikaraz.
 Berdin izarrek ere, beren zelata tokietatik
 argia pozik ematen dutenek,
 deitzen ditu, eta «hemen gaituzu» erantzuten die,
 eta pozik distiraten dute beren Egilearentzat.
 Hau da gure Jaungoikoa;
 ez da besterik, hau bezalakorik.

Berak aztertu ditu jakintzaren bide guztiak;
 eta bere seme Jakobi erakutsi dizkio,
 bere maite Israeli.
 Gero lurrean agertu zen,
 eta gizonen artean bizi izan zen.
 Bera da Jaungoikoaren aginduen liburua,
 betiko irauten duen legea;
 hura gordetzen dutenak biziko dira,
 eta bazterrera uzten dutenak, hil egingo.
 Itzul zaitez, Jakob, onar ezazu;
 zabiltza haren argiaren distiratan.
 Ez utzi besteei zure aintzarik,
 ezta jende arrotzari ere zure duintasunik.
 Zorionekoak gu, Israel,
 Jaungoikoari atsegin zaiona dakigunok.

ERANTZUN SALMOA: Sal 18, 8-9. 10-11

R/. Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.

Jaunaren legea bikain, barrena birbizteko,
 Jaunak hots egina sendo, ezikasiak eskolatzeko.
 Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren asegarri,
 Jaunaren aginduak garbi, begien argi. R/.

Jaunaren beldurra garbi, iraungarri betiko,
 Jaunaren erabakiak egiazko, guztiak orobat bidezko.
 Urrea baino, urre araztua baino maitagarriago,
 eztiորrazia baino gozoago. R/.

VI. irakurgai ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.
 Jainko Jauna,
 zeure Eliza beti haundiago egiten diharduzu,
 gizon-emakume guztiak bertara deituz;
 zaindu itzazu, zeure babespean,
 Bataioko uraz garbitu dituzunak.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
 R/. Amen.

VII. IRAKURGAIA: Ez 36, 16-17a 18-28

*Ur garbiz zipriztinduko zaituztet,
 eta bihotz berria emango dizuet.*

Ezekiel Profetaren liburutik

Jaunaren hitza etorri zitzaidan, eta honela esan zidan: «Gizonaren seme! Israel etxeak. bere lurrean bizi zelarik, lohitu egin zuen lurra bere bizitzaz eta egitez. O

nuen nire haserrea, lurralde horretan odola isuri zutelako, eta sasijainkoekin zikindu zutelako. Atzerrietan barreiatu nituen, lurraldeetan sakabanatuak ibili ziren. Beren bizitzaren eta egiteen arabera epaitu nituen. Joan ziren herrietan, nire izen santua itsusitu egin zuten; honela esaten zen haietaz: «Jaunaren herria dira horiek, eta Haren lurra utzi egin behar izan dute». Baina erruki izan nion, joan zen herrietan Israel etxeak itsusitu zuen nire izen santuari. Esaiozu, beraz, Israel herriari: Honela mintzo da Jauna:

"Ez naiz zugatik ari, Israel etxe;
 baizik eta joan zareten herrietan
 zuek itsusitu duzuen nere izen santuarengatik.
 Santu agertuko dut Nik nire izen haundia,
 atzerrietan lohitua izan dena,
 lohitu egin baituzue haien artean;
 eta zuek zigortzean,
 haien begientzat santu azaltzen naizenean,
 —dio diren guztien Jaunak—,
 herri haiek ezagutuko dute,
 Ni naizela Jauna.
 Nik hartuko zaituztet atzerrietatik,
 lur guztietatik bilduko,
 eta zuen lurraldera ekarriko.
 Ur garbiz zipriztinduko zaituztet,
 eta garbituko zarete zikin guztitik;
 garbituko zaituztet zuen sasijainkoetatik.
 Bihotz berria emango dizuet,
 eta barnean arnasa berria ezarriko dizuet.
 Kenduko dut zuen haragitik harrizko bihotza,
 jarriko dizuet haragizko bihotza.
 Nire arnasa zuen barnean ipiniko dut
 eta nire legebidean ibil eraziko zaituztet,
 nire aginduak zaindu ditzazuen eta bete.
 Nik zuen arbasoei emandako lurrean
 biziko zarete:
 Nire herri zarete zuek izango
 eta Ni zuen Jainko"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 50, 12-13. 14-15. 18-19

**R/. Bihotz garbi bat, Jainko,
 sor ezazu niregan.**

Bihotz garbi bat, Jainko, sor ezazu niregan,
 arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.
 Ez nazazu urrundu zeure aurretik,
 zeure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Zeure salbamenaren poza bihur iezadazu,
 zure arnasa zabalez sendo nazazu.
 Erakutsiko dizkiet gaiztoei zure bideak,
 Zugana bihurtuko dira bekatariak. R/.

Ez baitzaizu atsegin oparirik,
erre-opariak ez zenituzke hartuko, nik emanik.
Nire oparia, Jainko, bihotz damutua:
ez duzu arbuiatuko, Jainko,
bihotz damutu eta umildua. R/.

VII. irakurgai ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko Jauna, indar aldaezina eta argi ilunduezina,
begira iezaiozu bihotz onez
Eliza osoaren misterio harrigarriari
eta, betidanik nahi izan duzun bezala,
buka ezazu bakean
gizon-emakume guztien salbamen egintza;
mundu guztiak ezagutu dezala gauza miragarri hau:
erorita zegoena altxatua izan dela,
zaharra berriztatua
eta dena lehengo neurrian ezarria,
diren guztien hasiera den
zure Seme eta gure Jaun Jesu Kristori esker.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

Mezako otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko Jauna, gau santu hau
Kristo hilen artetik piztuaren distiraz argitzen duzu;
gorde ezazu zeure Elizako seme-alabetan
Zeuk emandako seme-bihotza;
gorputz-arimaz berriztaturik,
bete-bete zure zerbitzari izan gaitezen.
Zure Seme Jesu Kristo.

EPISTOLA: Erm 6, 3-11

*Kristo hilen artetik piztu zenez gero,
ez da berriro hilko.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusi lotuak izan garenok, Haren heriotzari lotuak izan gara. Bataioaren bitartez Berarekin heriotzan hobiratuak izan gara; Kristo hilen artetik Aitaren aintzaz piztua izan zen bezala, gu ere biziera berri batean ibil gaitezen. Izan ere, gure izatea Berarekin bat eginik baldin badago, Harena bezalako heriotzan, berdinegongo da Harena bezalako piztueran ere. Ezagutu dezagun, gure antzinako gizakia Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko izaera hau ezereztua geldi zedin eta, horrela, gu geu bekatuaren morrontzatik askatuak izan gaitezen. Norbait hiltzen denean, bekatutik askatua gelditzen baita.

Beraz, gu Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere Berarekin biziko garela; izan ere, badakigu Kristo hilen artetik piztu zenez gero, ez dela berriro hilko; heriotzak ez du Harengan gehiago aginterik. Haren hiltzea, bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen; eta Haren bizitza, Jaungoikoarentzat bizitzea da. Horrela, bada, zuek ere eduki itzazue zeuen buruak bekatuarentzat hilak bezala eta Jaungoikoarentzat biziak, Kristo Jesus gure Jaunarengan.

Aleluia: Sal 117, 1-2. 16bc-17. 22-23

R/. Aleluia, aleluia, aleluia.

Eskerrak Jaunari, ona baita,
Haren maitasuna betikoa baita.
Israel etxeak hau esan beza:
«Haren maitasuna betikoa.» R/.

«Jaunaren eskuinak nau altxatu,
Jaunaren eskuina bizkor da jokatu.»
Hil ez, baino bizi naiz egingo,
Jaunaren eginak nik oihuegingo. R/.

Etxegileek baztertutako harria,
berori gertatu da giltzarria.
Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri. R/.

EBANJELIOA: Mt 28, 1-10

Piztu da, eta hor doakizue aurretik Galileara.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Larunbat biharamunean, astearen lehenengo eguna argitzean, María Magdalena eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren. Eta, halako batean,

lurrikara haundi bat izan zen; Jaunaren aingeru bat zerutik etorri baitzen eta, hurbildurik, harria bere lekutik irauli zuen eta gainean eseri zen. Aingeruaren aurpegiak tximista zirudien, eta soinekoek, elur zuria; zaintzaileak beldurrez dardarka eta hilda bezala gelditu ziren.

Aingerua honela mintzatu zitzaien emakumei: «Zuek ez izan beldurrik! Badakit Jesus gurutziltzatuaren bila zatoztela; ez dago hemen; piztu da, Berak esan zuen bezala. Zatozte eta ikus, ehortzirik zegoen lekua. Zoazte azkar Haren ikasleengana, eta esaiezue: «Piztu da hilen artetik, eta hor doakizue aurretik Galileara. Han ikusiko duzue». Horra Nik esan.

Hilobitik arin-arin aldegin, eta bihotz-ikaraz eta pozaren pozez lasterka joan ziren ikasleei berri ematera.

Eta halako batean, bidera atera zitzaien Jesus, eta esan zien: «Poztu zaitezte!» Haiek hurbildu ziren eta ahuspez oinak besarkatu zizkioten. Orduan Jesusek esan zien: «Ez izan beldurrik! Zoazte eta esan nire senideei, Galileara joateko; han ikusiko naute».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, eskaintza honekin batera,
zeure herriaren otoitzak,
Pazko misterioetan hasi duguna,

zure indarrez betiko bizitzarako sendogarri izan dakigun.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

Jaunartze ondorengoa

Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun espiritua,
Pazko sakramentuez ase gaituzunok
zeure maitasunean bat egin gaitzazun.
Jesu Kristo.

Pazko-agurra

V/. Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.
R/. **Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.**